

BANDOA (B22-2020)

COVID-19 KORONABIRUSA.

3. FASEA. TERRAZEN ETA OSTATUEN ORDUTEGIAK.

"Normaltasun berrirako trantsizio-planaren" 3. FASEAREN azkeneko egun hauetan, beharrezkoa da taberna arruntak jendearentzat irekita egon ahal izango diren ordutegiak gogoraraztea, tabernen jarduera espazio publikoak erabiltzeko eta herritarren atsedenerako eskubideekiko errespetuarekin bateratzea xede:

- Covid-19ak eragindako murrizketen aurrean pizgarri gisa handitu den terrazaren zatia: 10:00etatik 22:30era.

- Aldez aurretik Udalaren baimena zuen terrazaren zatia: 8:30etik 23:00etara. Ostiraletan, larunbatetan eta jaiegun bezperetan ixteko ordutegia ordubete luzatuko da, baita ekainaren 1etik irailaren 30era ere.

- Establezimenduaren barnealdea: 06:00etatik 2:00etara. Larunbat eta jaiegunetan 2:30ak arte atzeratu daiteke itxiera.

Gehienezko edukiera: %75 terrazan; barnealdean, baimendutako edukieraren 2/3.

Barran kontsumitu daiteke, bezeroen edo bezero taldeen arteko gutxieneko distantzia 1,5 eta 2 metro artekoa izaten bada.

Indarrean jarraitzen dute mahaien arteko distantziari, desinfekzioari eta abarri buruzko neurriek.

Pandemia ez da amaitu, eta beharrezkoa da zuhurtasun eta babes irizpideekin jarduten jarraitzea eta indarrean dauden prebentzio eta higiene neurriak errespetatzea (pertsonek arteko distantzia, maskarak, etab.).